

B

BARREN

TOKIKOM

Antzinako usadioan

Mendaroko Etxabe baserrian umea jaio da,
etxean bertan



230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua barne

Urte amaiera arte
bigarren garajea doan
3 logelako etxebizitza
erosteagatik!!!!



- Etxebizitza BERRIAK
- Banco Guipuzcoanok finantzaturako obra
- Berahala eskuratzeko aukera
- Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

Luziano, beste handi bat Elgoibarko handien artean

Orain asko ez dela argitaratu dute eta jarri dute salgai *Luziano* izenburuko liburua. Itzal eta ospe handiko elgoibartar baten biografia da, beste batzuekin batera herri honen izena mundu osoan ezaguna egin duen Elgoibarko seme batena, bere herria biziki maite eta estimatzen duen gizon batena.

Oso biografia interesgarria da aipatu dizuedan hori, besteak beste, ustez artista bati dagozkion ezaugarri bohemio guztiak batzen dituelako. Hasiara zailak –ia ezinezkoak–, benetako bokazioa, mundu osoan zehar egindako ibilerak –Europa (Paris), Afrika, Asia, Amerika– eta azkenean aitortza bat, arteari eskainitako bizi oso bati dagokion aitortza.

Herri hotza da Elgoibar, bertako seme-alaba ezagunekiko behintzat, eta iruditzen zait ordua dela herri honen izena ezaguna egin duten jende horrenganako maitasuna, miresmena eta esker ona adierazteko, Eibarren egiten duten moduan. Eibarren ondo dakite ospe handiko herritarrei merezi duten aitortza egiten. Horren adibidea dugu Jose Ramon Orozko tenore ezagunari egingo dioten omenaldia. Iazko abenduan hil zen Jose Ramon Orozko, eta azaroaren 5ean omenaldi handia egingo diote Koliseoan.

Luzianok, beste batzuen antzera, merezi du nire uste apalean behintzat, halako maitasun keinu bat. Badakigu

elgoibartarrek estimutan dutela, baina adierazi ere egin behar izaten da hori.

Luziano, beste handi bat Elgoibarko handien artean!

Lucia Zabala



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Herri hotza da Elgoibar, bertako seme-alaba ezagunekiko behintzat”



**Ni ere banaiz
BARREN!**

Zergatik babesten duzu BARREN?

ALBERTO AGIRREAZALDEGI

*“Hasiara-hasieratik
sinistu dudalako proiektu honetan,
eta sinisten dudalako oraindik”*



ETXABE BASERRITIK DATOR NOTIZIA

Elena Garcia, seme jaioberria altzoan hartuta.



Sasoi batean normala zena albiste da gaur egun. Mendaroko Etxabe baserrian umea jaio da, etxean bertan, eta albistea bolo-bolo dabil herrian. Azaroaren 4an 70 urte beteko dira Etxaben azkene-koz ume bat jaio zenetik, eta berriak zeharo hunkitu ditu baserri hartan sortuta-koak. Juanita Elorzak, Etxabeko alabak, 82 urte ditu, eta bere jaiotetxean umea jaio dela esatearekin batera, negarrari eman dio, pozaren pozez. Mendaroko ospitaleko erizain eta emagin taldeak ere “sorpresaz” hartu du berria, jaiobe-riaren gurasoek aitortu dutenez. Izan ere, ez gaude halakoetara ohituta.

Ainara Argoitia

Mendaroko Etxabe baserrikoek ne-kez ahaztuko dute 2010eko iraila-
ren 7a. Haurdunaldiaren 41. astean
zegoen Elena Garcia elgoibartarra,
eta “arraro” sentitu zen goiz hartan. Erditzeko
unea gertu egon zitekeela jakin bazekien, astebe-
te aurretik konplutura zegoelako, eta luze ez zela
ospitalera joan beharra izango zuenez, eguna an-
tolatzeari ekin zion, abenduan 3 urte beteko di-
tuen alabatxoia ere baduelako: Irati. Mikel Gime-
no senarra gauzez lana eginda zegoen, eta bera
zein Irati lo zeuden artean. Inor esnatu aurretik,
dutxa bat hartu eta gosaltzea erabaki zuen, ba-
daezpada: “Hospitalera joaten banintzen beharba-
da ez zidatela gosaltzen emango pentsatu nuen,
eta gosalduta joatea erabaki nuen”. 8:30ak ziren.
Ordubetera, 9:30ak aldera, amari deitu zion, Irati
zaintzera joan ote zitekeen galdetzeko. Ez zuen
askoz gehiagorako astirik izan, baina. 9:45ean
jaio zen Oier, komunean.

“Ikaragarria izan zen. Pelikuletako kontua”, aitortu du Elenak, Oier eta Iratiren amak. “Kontrakzioak banituen, baina sekula ez nuen pentsatu horren azkarra izango zenik kontua. Konturatu orduko burua kanpoan zuen Oierrek, eta ez genuen ezertarako denborarik izan”. Mendaron bizi dira, ospitaletik bost-hamar minutu eskasera, baina etxean jaiotzea erabaki zuen Oierrek, bere garaian bere amak egin bezala. Izan ere, etxean jaiotakoa da Elena bera ere. “Gure amak ere ez zuen ospitalera joateko astirik izan, eta bizilagun batek eta aitak lagundu zioten erditzen. Haiantzako ere hain izan zen ustekabekoa, besotan hartu ninduen bizilagunari besoetatik irrist egin eta lurrera jausi nintzela”, aitortu du.

“Azkarra, baina gogorra”

Mikelek ere ez zuen pentsatzen hasteko astirik izan egun hartan. “Eskerrak motza izan zen, bestela nireak egin zuen”. Amaginarreba eta aitaginarreba iristen ez zirela ikusita, Mendaron bertan bizi den koinatuari deitu zion Mikelek ilobarekin egon zedin, baina hura iritsi zenerako gorputz erdi kanpoan zeukan Oierrek. Alferrik izan zituen Mikelek erditze aurreko ikastaroetan ikasitakoak. “Teoriak ez du ezertarako balio. Ordubete inguruan bost minuturo kontrakzioak sentitzen direnean ospitalera joateko esaten dizute, baina zeinek pentsatu behar zuen halakorik”, bota du Elenak. Kosta ahala kosta, emaztea ospitalera eraman nahi izan zuen Mikelek, harik eta Elenak berak ezinezkoa zela ulertarazi zion arte. Larrialdi zerbitzuetako telefonora (112) deitu zuen anbulantzia eskatzeko, eta, bitartean, medikuak telefonoz esaten ziona betetzen saiatu zen. “Gorputzak bultza egiteko eskatzen zidan, baina buruak ezetz ziotan, eta minez lehertu beharrean, hankak itxita mantentzen saiatzen nintzen ni. Bitartean, han ibili zen hau [Mikel], atzera eta aurrera, kanpora eta barrura, etxe barruan ez dugulako koberturarik”, azaldu du Elenak. Komunean jaio zen Oier, “lagundu beharrik gabe iaia”, aitaren arabera.

“Esperientzia gogorra, baina polita izan zen, zortez dena ondo irten zelako”, gaineratu du Mikelek. Soka bat hartu, zilborrestearen erdian korapilo bat egin eta anbulantziaren bila irten zen Mikel, baserriko bidea topatu ezinda zebiltzalako. “Gaizki irtengo denik ere ez duzu pentsatzen, astirik ere ez daukazulako, baina orain, atzera begira jarrita, oilo larrua jartzen zait. Eskerrak umea ondo zetorren!”.

“Gaizki irtengo denik ere ez duzu pentsatzen, astirik ez daukazulako”

Ospitalera bidean

“Kasu bitxi asko entzun eta irakurri ditugu. Umea supermerkatuan jaio dela, taxian, portalean... eta halakoetan, ‘Nola ez du-te ezer igarri? Non bizi ziren ba?’ gal-detu izan diot beti neure buruari. Eta begira: neuri gertatu zait orain”, esan du Elenak. Lehenengo haurdunaldian 8:00etarako joan zen ospitalera, eta goizaldera jaio zen Irati, ingresatu eta hamazazpi ordura, 1:00ak aldera. “Aukeran, Oierrena hobe da, baina beti ere medikua aldamenean badago, bestela ez”, esan du horren inguruan Mikelek. Garai batean umeak baserrian jaiotzen



Komunean jaio zen Oier, argazkian ageri den leku hortantxe.

zirela gogorarazi du horren harira, baina ordukoak “prestatuagoak” zeudela uste du: “Ganadurarekin lan egitera ohitua dagoena gu baino gehiago ikusitakoa da. Gu baserrira etorritako kaletarrak gara. Lehen, behia txahala egiteko zegoenean, zain-zain izaten ziren baserritarrak eguna etorri eta eguna joan; gure behiak, berriz, bakarrik moldatzen dira”.

Juanita Elorza—eta zortzi neba-arreba dira (sei bizi dira), eta baserrian jaiotakoak dira denak. Hala ere, umetan gurasoek sekula ez zioten halakorik aitortu. Ikusi ere, inoiz ez zuen ikusi inor etxean jaiotzen. “Mendaron umeak Santana ermitan jaiotzen zirela esaten ziguten, eta gero han etortzen zizkaigun: ‘Ume hau baserriko bidean topatu dut, beste hau horko kobazuloan, eta horko hori atarian’. Denak izaten ziren Santanan jaiotakoak, eta guk, ezjakinok, sinetsi. Umeak ginen-eta...”, azaldu du.

Mendaroko ospitaleko erizainak eta emaginak ere txundituta agertu ziren Oierren kasuarekin. “Ospitalera eraman nindutenean denak nituen galdezka. Nola izan zen jakin nahi zuten guztiek. Berdin anbulantziakoek ere. Gogoan daukat iritsi eta bat esan zidatena: ‘Gustua ematen du halakoetara etortzeak!’. Ospitalera hain ondo iritsi nintzen denak hasi zitzaizkidalda adarra jotzen. ‘Dena eginda zatoz barren!’, hala-xe esan zidan emaginak ere”, gogoratu du Elenak. Eta ondo zegoen, bai. “Ez anestesiarik eta ez punturik. Arratsaldean bertan kalera irteteko moduan nengoen ni, eta nire aldameneko gaixoa, berriz...”.

Baserri ondoko ermitan bataiatuko dute Oier, orain gutxi bizilagun talde baten artean berritu duten Santa Isabel ermitan. 70 urte dira Etxaben bertan inor jaio ez dela, eta ehun urtetik gora Santa Isabelen inor bataiatu ez dela.


Trafiko isunak garestitu ditu Udalak, eta arau-hauste larriak 18 eurotik 200era igo dituzte.

Isunak garestituta arauak gehiago errespetatuko direla uste duzu?



Ainhoa Cantos
24 urte, ikaslea

Baietz esango nuke. Gaizki aparkatzeagatik 200 euroko isuna jartzea ez da txantxetako kontua. Horrelako isunekin jendea kontu handiagoarekin ibiliko dela iruditzen zait. Azkenean isunak garestitzea izaten da arauak betetzeko modurik eraginkorrena.



Paquita Barreiros
57 urte, garbitzailea

Ez dakit, baina baietz esango nuke. Nik ere askotan ez dut zebra-bidea erabiltzen kalea gurutzatzeko, eta akaso, isunak jartzen hasiko balira, beteko nuke araua. Ez da metodorik egokiena, baina poltsikoa ukitzen digutenean denok ikasten dugu.



Elena Rodriguez
33 urte, monitorea

Jendeak antzera jokatu duela uste dut, Elgoibarren ez dagoelako aparkatzeko lekurik. Dena dela, jartzekotan, isunak egunero eta auto guztiei jartzea espero dut. Zapatuetan kanpoko jende asko etortzen da, baina orduan ez dute isunik jartzen, eta hori ez zait ondo iruditzen.



Santi Dieguez
59 urte, mekanikoa

Ez dakit, baina nire ustez hori ez da bidea. Beste irtenbideren bat aurkitu behar da. Aparkaleku gehiago egin behar dira. Aparkaleku falta da arazoa. Jendeak gaizki aparkatzen du, ez dagoelako ondo aparkatzeko lekurik. 200 euroko isuna gehiegizkoa iruditzen zait.



NEREA IÑIGUEZ

HORTZ KLINIKA

San Inazio, 4 - 48260 Ermua (Bizkaia)
Sarrera Bizkaia etorbideetik
Tel.: 943 030 512
Faxa: 943 031 045
niklinika@gmail.com






Eskerrik asko!

**Sallobenteko berdegunea zikinkeriz beteta lagatzen dute:**

“Orain dela pare bat aste Sallobentera joan nintzen paseatzera, eta berdegune guztia zikin-zikin eginda aurkitu nuen. Lotsagarria iruditzen zait. Leku publikoak denonak dira, eta denon artean zaindu behar ditugu. Mahaiak eta parrilla erabiltzea ondo dago, baina ondoren zaborra batu egin behar da”.



Herriko Antzokiko kultur ekitaldien ordutegi berria ez da aproposa: “Herritarrek hala eskatu dutela-eta, Kultura Sailak Herriko Antzokiko ekitaldien ordutegia aldatzea erabaki du, eta aurrerantzean 20:30ean hasiko dira ekitaldiak. Pena handia hartu dut, benetan. Oso gustura joaten naiz antzerkiak ikustera, eta ordutegi berri horrekin, ezin izango naiz joan. Komertzioetan lan egiten dugunontzako askoz hobea zen lehengo ordutegia, eta batez ere, herritik kanpo lan egiten dugunontzako. 22:15ean jende guztia joan daitekeela iruditzen zait. Erabaki hori berriro ere aztertzeko eskatu nahi nioke Kultura Sailari. Mila esker”.

Ubitarteko obrak direla-eta, argi farolak kendu egin dituzte: “Ubitarte ingurua obretan dago, eta argi farolak ez dituzte martxan jartzen. Ondorioz, ingurune hori oso iluna egoten da. Berandu iristen naiz etxera, eta batzuetan beldurra ere pasatu izan dut. Obrak iraun artean, behin-behineko argiztapen sistemaren bat jartzea eskertuko genuke inguru horretako bizilagunok”.

**Txalo bero bat Atxutxiamaikako arduradunei:**

“Joan zen zapa-tuan 15 urte egin zituen Atxutxiamaikak, eta sekulako festa polita antolatuta zuten urteurrena ospatzeko. Gure txikiek primeran pasatu zuten, eta gurasook ere bai. Horrelako jaialdiak sarriago antolatu behar liratekeela iruditzen zait. Zorionak, eta segi horrela! Lan bikaina egiten duzue”.

**San Lazaro egoitzakoek eskerrak eman nahi dizkiete Errosario kaleko jaien antolatzaileei:**

“Aurten ere arratsalde polita pasatu dugu Errosario kaleko jaietan. Txokolate jana egin genuen eta jaietako giroaz gozatzeko aukera izan genuen. Horregatik txalo bero bat merezi duzue. Era berean, Nagusilan elkarteko bolondresei eta beste laguntzaile guztiei ere, eskerrak eman nahi dizkiegu eskaintzen diguten laguntzagatik”.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko, 6.000 aldiz!

Banan-banan zuengana iristea ezinezkoa izango dugunez, gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu urriaren 8an Elgoibar euskal esaera zaharrez jantzi zenutenoi. Laneguna izan arren, fin-fin pasatu zineten denok Udaletxeko pleno-aretotik. 8 urte inguru izango zituen gazteenak; edadetuena, berriz, 96 urte. Izaerak, ideologiak eta pentsaerak ere askotarikoak eta diferentziak ziren. Baina zuon arteko diferentziak ahaztu, eta bat egin zenuten Gotzonekin eta euskararekin.

Urduritasuna sumatu genuen zuotako askoren esku eta ahotsetan; emozioa eta ilusioa ere bai batzuen aurpegi eta begietan. Ikastetxeetatik etorri zineten ikasle eta irakasleok, eguneroko klaseak etenda; lanean baimena eskatuta azaldu zineten asko; izan zen jarritako ordurako larri iritsi zenik ere; autoa hartu eta Bilbotik, Irundik edo Berangotik etorritako elgoibartarrak ere izan zineten tartean; mikrofono baten aurrean estreinakoz jarri zineten bat baino gehiago. Baina han egon zineten. Estimatzon dizuegu egin zenuten ahalegina.

Merezi zuelakoan ekin genion irakurketa publikoa antolatzeari; Gotzonek, euskarak eta Elgoibarko euskaldunok merezi dugulako. Bagenekien lan eta erronka handia izango zela 600 minutu beste horrenbeste herritarrekin eta 6.000 esaera zaharrekin betetzea. Baina, zuoi esker, us-te baino errazagoa izan da dena.

Ez dugu gutun hau amaitu nahi egitasmoa babestu duzuenoi (Kutxa eta Danobat) eskerrak eman gabe. Krisi ekonomikoaren pisua gure gainean izan arren, zuek

ere merezi zuela erabaki zenuten. Eta, amaitzeko, irakurraldiaren prestakuntza-lanetan lagundu diguzuenoi ere gure eskerrak zintzoenak eman nahi dizkizuegu: Aitor Lauzirika, Jabier Larrañaga, Amaia Gorrotxategi eta Josu Iriondo, besteak beste. Horrelako ekimenak prestatzeko jende askoren lankidetzeta behar izaten da, eta oraingoan ere, jende askoren berotasuna eta babesa sumatu dugu.

Aurtengoa ikusi ondoren, datorren urteko urriaren ere saiatuko gara euskararenugarra elgoibartarren artean pizten.

Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala ☺

Urriaren 30ean, Donostiara

Azken 50 urteotan, kasik 10.000 euskal herritarrek torturak edo tratu txarrak salatu ditu polizia ezberdinen esku egon ondoren. Badira torturapean hildako herritarrek ere. Euskal Herrian eta nazioartean hamaika erakunde, alderdi politiko eta sindikatuk arbuatu dute inkomunikazioa: Amnistia International, Nazio Batuen Erakundeko begiraleak, nazioarteko abokatuak elkargo ezberdinak, Eusko Autonomi Elkarteko parlamentua, Euskal Autonomi Elkarteko Arartekoa, Euskal Herriko gehiengo sindikala... Espainiako Gobernuak muzin egin die eskaera horiei guztiei.

Estrasburgok Espainiako Estatu zigorru du tortura salaketa bat ikertu ez izanagatik. Hilabete amaieran guardia zibil batzuk akusatuen aulkian eseriko dira Donostian, Mattin Sarasola eta Igor Portu torturatzea egotzita. Hilabete amaieran, Espainiako Polizia Nazionalak akusatuen aulkian eseriko dira Madrilan, Maite Orue tor-

turatzea egotzita. Denbora igaro da gertaera haieztatik, baina, oraindik orain, ugariak dira Espainiako Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak buruturiko atxiloten ostean torturak salatu dituzten euskal herritarrek.

Tortura salatu izana zigorraren jomuga dago. Torturatuak izan diren herritarrek auzibidean jarri dituzte, jasandakoa salatu dutelako. Torturak salatu dituzten herritarren abokatuak auzibidean jarri dituzte, euren bezeroak jasan duena salatu dutelako.

Egoera honetan, eta gaiak duen larritasunari loturik, honako eskaera hauek jarri nahi ditugu mahai gainean:

- *Tortura behin betirako amaitzea eskatzen dugu. Inor gehiago torturatu ez dezaten beharrezko neurri eta bermeak aldarrikatzen ditugu.*

- *Torturatuak izan diren herritarrei torturaren ondorioak gainditzeko beharrezkoak zaizkien bideak eskaini behar zaizkie.*

- *Torturaren praktikak duen zigorgabetasuna amaitzeko eskatzen dugu.*

- *Erakunde publikoei konpromiso argiak eskatzen dizkiegu tortura amaitzeko, eta horretarako eman behar den lehenengo pausoa inkomunikazioa behingoz bukatzea da.*

Zentzu honetan dei egin nahi dugu urriaren 30ean Donostian egingo den manifestazioan parte hartzera. Manifestazioaren leloa *Torturarik ez!* izango da, eta arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Antiguako tuneletik.

AAM Elgoibar ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Eva Garcia

Globalizatuta bizi garen mundu honetan web bidezko topagune arrakastatsuak agertu dira, eta sare sozialak gaurkotasan albiste bihurtu dira. Nik alta emana dut

holako pare bat saretan, konklusio eta emaitza ezberdinekin.

Leku horietan izena eman, eta harremanetarako bide berria sortuko da gure mundu mugatuan. Bakoitzak bere profila sortzen du, eta era horretan, antzeko joerak dituen jendea erakartzeko aukera izango du.

“Sare sozialak harreman sozialen definizio birtual hotz bat baino ez direla esaten dute”

Hori da ideia behintzat. Gure kontaktuak laguntzat hartzeko aukera ematen digu hasierako formularioan. Handik bi edo hiru egunera haien eskaerak jasoko ditugu, eta gure lagunen zubia aprobetxatuz, beste ezagunekin zuzenean “nire laguna izan nahi?” galdetuta, kontaktu gehiago lortzeko aukera izango dugu. Zertarako? Ez nago ziur, baina hortik aurrera haien mugimendu guztiak jarraitzeko aukera izango dugu.

Era guztietako gonbidapenak jasoko ditugu. Inoiz hitzik ere egin ez dizun norbaitek zure laguna izan nahiko du, lotsagarriak diren argazkiak gehitu nahiko ditu lankideren batek, familiako norbaitek ulertzen ez dituzun aplikazio mordoak bidaliko dizkizu... Sare sozialak harreman sozialen definizio birtual hotz bat baino ez direla esaten dute batzuek, baina hona hor sare sozialen xarma, beste aldetik: kalean ikusi eta agurrik egingo ez dituzten guztiak web orri berean bilduko dituzte.

Zure bizitza objektu soziala bihurtuko da. Zure bideo, argazki, testu eta komentarioak miloika pertsonen eskura egongo dira, eta unibertsoa zure kontra konspiratzen hasiko dela irudituko zaizu batzutan. Eta momento horretan sekta sozial hauetan sartu baino lehen zure bizi bakartia faltan botako duzu, agian. Bakarrik egotearen fan-ak bihurtuko al gara azkenean?



Miriam Garcia

Sare sozialen kontzeptua pertsonen arteko harremanak eta kontaktua bultzatzea da. Berez, ideia bezala, oso ona da. Teorian, sare sozial baten bidez interes edo behar berdinak dituzten pertsonak aurkitu ditzakegu, gaur egun gure bizimodu azkarrek askotan eragindako bakartasuna etenda. Horrela, benetako lagun gutxi batzuk edukitzetik, ehunka lagun birtual edukitzera pasatu gaitzake denbora gutxian. Baina hori teoria hutsa da.

Praktikan, nire iritiz behintzat, kontrakoa gertatzen da: gehiegizko “bizitza birtualak” isolamendu handiagoa sortzen du egunerokoan. Sare sozial horietako bateko talde izen batek ederki erakusten du errealitate hori. Taldearen izena honako hau da: Ehun lagun bahino gehiago Facebook-en eta kopa batzuk hartzera norenkin irten ez.

“Gehiegizko bizitza birtualak isolamendu handiagoa sortzen du”

Bistan da aro digitalean pertsonen arteko harreman formak aldatzen ari direla. Bide horren alde positiboak ez ditut zalantzan jartzen, baina beste pertsonekin harremanetan jartzeko bide digitala ohiko bidea bezala hartzen hasten bagara, kezkatzekoa da. Horrek bereziki belaunaldi berrietan izan dezake eragina. Duela gutxi gai honekin zerikusia duen albiste bat ikusi nuen: ikastetxe batean soinetako orduak gehitu egin dituzte umeen artean gaur egun galdetzen ari diren bi gauza sustatzeko: alde batetik, kaleko jokoak, eta, bestetik, gazteen artean pantailatik kanpoko harremanak sendotzea.

Gauza guztiak bezala, sare sozialen erabilera onuragarria edo kaltegarria den oso erlatiboa da. Nola eta, batez ere, zenbat erabilten direnaren arabera da hori.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Trafiko isunak garestitu egin ditu Udalak

Arau-hauste larrien gaineko isuna 18 eurotik 200era igo dute

Urriaren 16an jarri zen indarrean trafikoaren gaineko ordenantza berria, eta ondorioz, trafiko isunak garestitu egin dira. Horren arabera, Ermuaranbide kaleko errotondan edo pixka bat goraxeago dagoen Eroski supermerkatuaren aurrean bigarren lerroan, aparkatzeagatik 200 euroko isuna ordaindu beharko da aurrerantzean. Izan ere, arau-hauste larrien gaineko isuna 18 eurotik 200era altxatu dute. Arau-hauste arinak sei euro ordaindu behar izaten ziren lehen, eta orain 40 euro. Azkenik, arau-hauste oso larriek 500 euroko isuna izango dute. Kopuru horiek guztiek %50eko deskontua izango dute, jakinarazten den egunetik, hogei eguneko epean ordaintzen badira.

Bestalde, azaroaren 25etik aurrera, trafiko gaietarako helbide elektronikoa (posta elektronikoz) jarriko da abian. nahi izanez gero, herritarrek posta elektronikoa bidez jaso ahal izango dute arau-hausteen berri. Bestalde, isunak ez dira orain arte moduan udaltzaingoa ordainduko, Kutxan baizik.



Enpresetako hizkuntza erabilera aztertu dute IMHn



Enpresetako hizkuntza erabilera buruzko 30+10 mintegia egin zuten atzo IMHn. Bosgarren urtez jarraian, enpresen emaitzak hobetzeko hizkuntzak nola erabili behar diren aztertu zuten. Guztira, hamahiru hitzaldi eskaini zituzten. IMHK, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Elgoibarko Udalak eta Ahi-ze-AEK hizkuntza-aholkularitzak elkarlanean antolatu zuten ekitaldia.

Zaintzapeko etxebizitza berria inauguratu du Agifesek

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zaintzapeko etxebizitza bat inauguratu dute Elgoibarren, Pedro Muguruza ikastetxeko irakasleek bititoki moduan erabiltzen zituzten etxeetan. Zazpi lagun hartzeko pentsatua dago, baina une honetan hiru lagun bizi dira han. Ehun metro koadro inguru ditu etxeak, eta Elgoibarko Udalak lagatakoa da. Barnealdea, berriz, Kutxaren *Kutzazabal* programari esker berritu dute. 164.000 euroko kostua izan du guztira. Debabarrena eskualdeak 54.000 biztanle ditu, eta hamahiru lagun daude zaintzapeko etxeetan.



Izena **Txankakua**



Txankakua merkatarik elkartek bezero berriak lortzeko kanpaina jarri du martxan. Urriaren 15etik azaroaren 15era bitartean %5eko deskontua izango dute Txankakuaren txartelarekin ordaintzen dutenek. Txankakuaren txartela doan eskuratu daiteke, elkarteko edozein dendatan. Era berean, euritakoak lagatzeko sistema jarri dute martxan. Hau da, euria egiten duen egunean aterkirik ez daukan bezeroari euritakoa utziko diote dendan, ahal duenean itzultzeko baldintzarekin. Informazio gehiago 943 747 301 telefonoan eskuratu daiteke.

Zenbakia **71.000**

71.000 euro erabiliko ditu Udalak King-Kong inguruan baranda berria jartzeko. Egungo baranda zahartuta eta herdoilduta dago, eta ugertzen ez den metalezko baranda berriak jarriko dituzte hauen ordean. Obrak lehenbailehen hasi nahi dituzte Udaleko agintariek, eta behin lanak hasten diren unetik, hiru hilabeteko epea izango du enpresa arduradunak lanak amaitzeko.

Irudia **Berdegunek**

Elgoibarko Udalak 222.000 euro erabiliko ditu herriko lorategi eta berdeguneen mantenu lanetarako. Guztira, 497 zuhaitz, 559 zuhaixka, 47 lorontzi, eta 2,5 kilometroko palatua zaindu beharko ditu enpresa arduradunak. Lorezaintza zerbitzua kontratatzeko deialdi publikoa egin du Udalak, eta azaroaren 15ean amaituko da eskabideak egiteko epea.



Urriaren 31n amaituko da gripearen kontrako kanpaina

Elgoibarko Osasun Zentroak gogorarazi du urriaren 31n amaituko dela gripearen kontrako txertoa hartzeko epea. Kanpaina hori 65 urtetik gorakoentzako eta gaitasun kronikoak dituztenentzako da, bereziki.

Zerbitzu telematiko berriak jarri ditu martxan Udalak

Elgoibarko Udalak zerbitzu telematiko berriak jarri ditu martxan, www.elgoibar.org atarian. Udalarekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko informazioa lortzeaz gain, gai horiek lotutako gestioak egin ahal izango dira aurrerantzean Internetez. Besteak beste, honako gaiak kontsultatu eta egin ahal izango dira: Erroldatzeari buruzko datuak eta historia kontsultatu, sinadura elektronikoa duen erroldatze ziurtagiria eskuratu, Udalaren tasak eta zergak, eta herritarrei edo enpresei jarritako isunak kontsultatu edo ordaindu. Zerbitzu berri hau erabili ahal izateko www.elgoibar.org atarian sartu behar da.

1967koen kinto bazkaria

1967an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute azaroaren 20an, Sigma jatetxean. Interesatuek 55 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu korrante zenbaki honetan, azaroaren 10a baino lehen: 3035 007 22 0071120272.

Errosario kaleko jaietako zozketa

Egin dute Errosario kaleko jaietako errifaren zozketa, eta ondorengo zenbakiak izan dira sari-tuak: 1. saria, 0644 (ordezkoa 0456); 2. saria, 0493 (ordezkoa 2.837) eta 3. saria, 1.093 (ordezkoa, 1.534). Saridunek hilabeteko epea daukate saria jasotzeko.

Gaur hasiko da Danbaka musika lehiaketa

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango da kontzertua, 22:30ean

Guztia prest dago IV. Danbaka Musika Lehiaketako lehenengo kontzerturako. Hogeitai taldek hartuko dute parte guztira lehiaketan, eta gaur gauean izango da lehenengo kontzertua. Hona hemen lehenengo lau taldeen aurkezpena.

BLACK RIVER

Black River Oñatiko musika taldea da. Lehenengo urratsak 2007an eman zituen, beste talde batzuen bertsioekin kontzertu bat emanaz. Ondoren, musika estiloa izango zena definitzen joan zen eta metal mundura bidea jarri ostean, abesti propioak sortzen hasi ziren.



DESPREZIO

Desprezio 2003an sortu zen Arrasaten eta punk-rocka jotzen dute. Hasieran lau neska osatzen zuten taldea, baina 2005ean formazioa aldatu zuten: lzu sartu zen baxua jotzera eta Manzana abestera ere pasatu zen. Orain dela urtebete diskoa grabatu zuten



LORD WITCH

Lord Witch taldea 2004ko udan sortu zen Bergaran. Power metal eta heavy metal melodikoa nahasten dituzte. Ahots garbi eta melodikoa, riff eta bateria erritmo gogorrekin nahasten dute, teklatuaren soinuarekin apainduta. 2009an kaleratu zuten estreinako diskoa.



LA-TOX

La-tox proiektua Bergaran sortu dute 2010ean, Txus Arriaran eta Laida Ballasterosek elkarlanaren. Ordenagailuak eta sintetizadoreak erabiliz, musika elektronikoa egiten dute. Bikote hori Yotox-Bergara eta L.2.B.2. proiektuetan ere murgilduta dago.



Azaroak 5

- EL TRIO CALAVERA (Oñati). Estiloa: rumba.
- ROCK PRIVADO (Oñati-Donostia). Estiloa: pop-rocka.
- FRONT MALABAR (Arrasate). Estiloa: rock powerra.
- YMOTEK (Abadiño). Estiloa: metala.

Azaroak 19

- DOCTORS KLUB (Abadiño-Durango). Estiloa: rocka.
- ROMBOS NEGROS (Bergara). Estiloa: punk-rocka.
- KARPOVIAN PROJECT (Mutriku). Estiloa: rock-metal progresiboa.
- EZI (Oñati). Estiloa: rocka.

Azaroak 26

- XARMA (ONDARRU). Estiloa: rocka.
- TXUSTERS (Eibar). Estiloa: rock-and-rola.
- SEAFOID (Eibar). Estiloa: folka, popa eta rocka.
- SCAM (Aretxabaleta). Estiloa: rocka.

Abenduak 17

- DARK CODE (Bergara). Estiloa: death metal melodikoa.
- KUBERS (Soraluze). Estiloa: pop-rocka.
- ASFIKSIA (Oñati). Estiloa: heavy-rocka.
- INDUSTRIA DOLOR (Arrasate). Estiloa: musika industrialia.

BABESLE NAGUSIA

LAGUNTZAILEA

kutxa gazte

PREST

m MONDRAGON UNIBERTSITATEA

HEDABIDE LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEA

B BARRIO

foiena 10 URTE

DANBAKA III
IV. MUSIKA LEHIAKETA

www.danbaka.com

Irailan...

JAIOAKOAK



Ekain Soto Berezartua
Irailak 3
David eta Ana



Naroa Carrascosa Iriondo
Irailak 24
Tomas eta Itziar



Oier Gimeno Garcia
Irailak 7
Mikel eta Elena



Irati Guinea Gonzalez
Irailak 22
Ander eta Koro

Chayma Malki
Irailak 17
Mohamed eta Najat

Beñat Arrillaga Salaberria
Irailak 19
Josu eta Nerea

Amina Karmaoui
Irailak 21
Aziz eta Najat

Manar Yaagoubi
Irailak 22
Ismail eta Bouchra

Ainara Feitosa Oliveira
Irailak 22
Hemanuella

Beatriz Pires Rodrigues
Irailak 21
Miguel eta Marta

Elene Gurrutxaga Perez
Irailak 27
Angel eta Raquel

Inar Urizar Aduriz
Irailak 29
Iban eta Ainhoa

Anas El Hachmi
Irailak 28
Hassan eta Rachida

EZKONDUTAKOAK

- Eneko Ramos eta Ainara Barrutia Irailak 18
- Xabier Ulibarri eta Ainhoa Mateo Irailak 18

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

HILDAKOAK

Arrate Ota Abarrategi • 52 urte • Irailak 1
Eugenio Fernandez Barruso • 77 urte • Irailak 1
Maria Isabel Zabaleta Bergaretxe • 60 urte • Irailak 1
Jose Luis Huidobro Torino • 58 urte • Irailak 5
Alejandro Acereda Iriondo • 77 urte • Irailak 5
Jose Luis Arriola Ostolaza • 62 urte • Irailak 13
Rita Balbas Garcia • 88 urte • Irailak 19
Vicente Kortabarría Kortabarría • 79 urte • Irailak 19
Natalia Antolin Andres • 81 urte • Irailak 22
Martin Santos Llanera • 78 urte • Irailak 24
Heracio Moya Gomez • 73 urte • Irailak 26

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

PAKITA IBARMIA URZELAI



2010eko urriaren 20an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



‘Euskara, nire errepublika’ izenburuko hitzaldia eskainiko du Anjel Lertxundik eguaztenean, Kultur Etxean

19:00etan hasiko da, eta ‘www.elgoibarren.net’-ek zuzenean emango du hitzaldia

Euskara ala ezkara hitzaldi zikloaren barruan, *Euskara, nire errepublika* izenburuko hitzaldia eskainiko du hilaren 27an Anjel Lertxundi idazle eta zutabegileak (Orio, 1948), Elgoibarko Kultur Etxean. Idazle izateaz gainera, idazketarekin eta irakurketarekin lotura zuzena duten hainbat lanbide izan ditu Lertxundik, eta kazetaritza ere “itsu-mutil leiala” du, *Eskarmentuaren paperak* liburuan aitortzen duenez [Liburu horrekin Espainiako Sari Nazionala jaso berri du, saiakera alorrean]. Hain justu ere, literatura eta kazetaritza jardungo du eguaztenean, euskaraz eta euskaratik.

“Idazteak ez nau zoriontsu egiten, baina zoriontsuago sentitzen naiz goizero esaldi eta paragrafo batzuk idazteko aukera baldin badut”, dio saritu berri dioten liburuan, Orhan



Pamukeri hitzak baliatuta. **BERRIA** egunkarian idazten du egunero, Hitz beste izenburuko atalean, eta esperientzia horren berri ere emango du.

Anjel Lertxundirena *Euskara ala ezkara* zikloko bigarren hitzaldia da. Joan zen

eguaztenean, bertsolaritzaren inguruan jardun zuen Andoni Egañak (Zarautz, 1961), Uxue Alberdi bertsolari eta lagunak jarritako amuei erantzunez. Hitzaldiak ikusmin handia sortu zuen, eta bete egin zen hitzaldi gela.

Herriko Antzokia bete egin dute Elgoibarko Udal Musika Bandak eta musika eskolako ikasleek



Elgoibarko Udal Musika Bandak eta musika eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten joan zen domekan Herriko Antzokian, Udal Musika Bandaren 125. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan. 70 musiko inguru igo ziren oholtzara, eta Herriko Antzokia bete egin zuten. Udal Musika Bandaren ohiko jarraitzaileez gain, musika eskolako guraso, lagun eta gertuko ugari batu ziren kontzertuan.

Skapando taldearen kontzertua gaur, Madalan

Legazpiko Skapando taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 22, Madalan. Sariki enpresaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu dute kontzertua. 23:00etan hasiko da emanaldia, eta ska musika gogoko duzuenok hor duzue zuen aukera.

Internetez lana bilatzeko doako ikastaroa, Mendaron

Internetez lana bilatzen laguntzeko ikastaroa antolatu dute Mendaron. Urrian eta azaroan izango dira ikastaroak, KZ gunean, eta besteak beste, *redtrabaja* eta *lanbide.net* webguneak aztertuko dituzte. Debegesak eta SPEEK antolatzen dute ikastaro hau, Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta Internet erabiltzen ikasteaz gain, orientazio pertsonala ere jasoko dute izena ematen dutenek. Informazio gehiagorako: 661 291 878.

Hamar orduz Gotzon Garateren lana goratu dute 600 euskaltzalek

Antolatzaileek herritarren parte-hartzea eskertu dute

Urriaren 8a Gotzon Garate omentzeko baliatu zuten elgoibartarrek. Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak Gotzon Garatek *Atsotizak* liburuan batutako esaera zaharren irakurketa publikoa antolatu zuten egun horretarako, Kutxaren eta Danobaten laguntzarekin, eta ekimen horrek 600 euskaltzale inguru batu zituen. Goizean goizetik iluntzera arte, esaera zaharrei ahotsa jartzen jardun zuten herritarrek, eta udaletxeko bozgorailuaren bidez, plazatik bertatik ere jarraitu ahal izan zen ekitaldia; baita Internetez ere, teknologiak horretarako aukera eman zuen heinean.

Ekitaldi zinez arrakastatsua izan zen, eta antolatzaileek eurek eta Gotzon Garateren senitartekoek eskerrak eman dizkiete ekital-



dian parte hartu zuten herritarrei. www.elgoibarren.net webgunean dauzkazue ikusgai irakurketa publikoko azken hamabost minutuen laburpentxoak eta amaiera-ekitaldia bera. Bideoaren amaieran, berriz, esaerak irakurri zituzten lagunak argazkiak ikus ditzakete.

Atxutxiamaikak hamabosgarren urtemuga ospatu du gaurko eta atzoko lagunekin



Zapatuan hamabost urte bete zituen Atxutxiamaikak, Elgoibarko Izarra kultur elkartearen aisialdi taldeak. Urteurren hori ospatzeko, Atxutxiamaikako gaur egungo hezitzaileek jai handi bat antolatu zuten zapatuan, eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jendetza handia batu zen Leku Ederren. Gerturatu ziren haurrak eta gurasoak primeran ibili ziren aisialdi taldeko hezitzaileek antolatutako ginkanan, eta ondoren, haietako askok Leku Ederreko karpan bazkaldu zuten, elkarrekin. Antolatzaileen arabera, ehun lagun inguru bildu ziren bazkaritan. Bazkalostean, erromeria ere izan zuten.

Kostaldeari buruzko argazki erakusketa antolatu du Ongarrik

Isabel Diezen argazkiekin erakusketa antolatu du Ongarri Argazki Taldeak. Urriaren 15ean zabaldu zuten, eta hilaren 30a arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, 19:00etatik 21:00etara. Haitzak, harea, itsaslabarrak, arrezifeak, itsas hautsiak eta itsas belarrak dira, besteak beste, erakusketako protagonistak, eta haien bidez, kostaldearekiko duen miresmena erakutsi nahi izan du Isabel Diezek. “Edertasunari begiratzeak, eta misterio, baretasun, indar, lasaitasun eta zakartasunaren sentipenak behin eta berriz naramate itsasertzera, bertan egunerokoa ezohiko bihurtzen da-eta”, dio erakusketarako prestatutako esku orrian.

Dantza-performance tailerra azaroan

Dantza-performance tailerra antolatu du Elgoibarko Berdintasun Sailak azarorako. Neska gazteen arteko harremanak bultzatzeko, norberaren gaitasun eta potentzialitateei balioa emanez autoestimua indartzeko, norberaren gorputzaren kontzientzia hartzen laguntzeko, eta feminismoan ari zeko beste aukera eta bitarteko batzuk ezagutarazteko asmoz antolatu dute tailerra, besteak beste. Kultur Etxeko sotoan egingo da tailerra azaroaren 3, 10, 17 eta 24an, 18:00etatik 20:00etara. Tailerra doan izango da, baina ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Horretarako Berdintasun Sailera deitu behar da: 943 741 050.

Zirkoa eta pailazoak, bihar, merkatu plazan

Barren Azokak antolatuta, zirkoa eta pailazoak izango dira bihar merkatu plazan, 10:00etatik aurrera. Ordu bete beranduago, 11:00etan, antzerkia izango da, eta haren ostean, globoflexia, globoekin irudiak sortzeko tailerra.

Urriaren 12a gurpil gainean

368 lagunek parte hartu zuten Debabarrena BTT proban, eta Iñigo Lazkanok irabazi zuen San Pedroko igoera

Bizikleta zaleen eguna izan zen urriaren 12a. Izan ere, San Pedroko igoera eta Debabarrena BTT proba jokatu ziren egun horretan. Eguraldi bustia egin arren, jendetza handia batu zen bietan, antolatzaileen euren aurreikuspen onenak betez. San Pedroko Igoeran 44 lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lazkanok mendaroz nagusitu zen denen gainetik, 14:41eko denborarekin [Iñigo Larizek du errekorra, 13:21]. Haren hurrengo sailkatu ziren Jorge Gonzalez eta Mikel Hernandez elgoibartarrak. Karakateko mendi bizikleta proban, berriz, 368 lagunek parte hartu zuten, iaz baino 143 gehiagok. Gipuzkoa osotik etorri zen jendea, eta baita Bizkaitik, Arabatik eta Miranda de Ebrotik ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez. www.elgoibarren.net helbidean dituzue proba bateko zein besteko argazki gehiago.



Goian, San Pedroko igoeran parte hartu zutenak, talde argazkian. Behean, ezkerrean, Iñigo Lazkanok, eta eskuinean Mikel Hernandez eta Oscar Oncala.



Giro onean osatu zuten ibilbidea BTT martxan parte hartu zutenek.

San Pedroko igoera

Idortorbeko gainera ailegatzeko 500 bat metro falta zirenean jotako erasoari esker irabazi zuen Iñigo Lazkanok.

1. Iñigo Lazkanok	14:41
2. Jorge Gonzalez	14:47
3. Mikel Hernandez	14:47
4. Hazibar Iraolagoitia	14:58
5. Iñigo Lariz	14:59
6. Oscar Oncala	15:04
7. Jose Mari Fernandez	15:34
8. Gorka de la Horra	15:49
9. Iñaki Gorosabel	16:09
10. Ion Revert	16:21
11. Beñat Zafra	16:26
12. Ibon Gabilondo	16:33
13. Moises Uriarte	16:55
14. Ion Agirrebeña	17:35
15. Xabier Elgezua	17:41
16. Enekoitz Elorza	17:43
17. Jose Felix Iglesias	17:48
18. Jose Antonio Agote	17:54
19. Martin Dominguez	17:58
20. Enrike Astigarraga	18:05
21. Ainhoa Lendinez	18:09
22. Tomas Arizaga	18:20
23. Aitor Romera	18:36
24. Ricardo Huidobro	19:06
25. Iosu Juaristi	19:10
26. Yokin Bergara	19:14
27. Gorka Cebrian	19:19
28. Fabian Castro	19:37
29. Raul Santa Marta	19:37
30. Imanol Zengotita	19:44
31. Martin Dominguez	19:49
32. Victor Bengoetxea	19:49
33. Gorka Zabala	20:08
34. Eugenio Lendinez	21:01
35. Iker Amutxastegi	21:11
36. Ion Mekolalde	21:17
37. Ivan Gurrutxaga	21:37
38. Sergio Rodriguez	22:20
39. Asier Besga	23:11
40. Angel Irusta	23:45
41. Aitor Oñederra	24:21
42. Julian Rodriguez	24:24
43. Julen Agirreburalde	24:24
44. Jose Migel de la Pela	26:06

Txurruka anaiek irabazi dute Plaza Handiko pilota txapelketa

10 koadroko frontoia egiteko aukera aztertzen ari da Udala

Igor eta Iker Txurruka anaiak dira Plaza Handiko pilota txapelketako estreinako txapelkunak. Urriaren 14an jokatu zuten finala Karmel eta Gerrika bikotearen kontra, eta hamabost tantotan laga zituzten.

Final korapilotsua izan du txapelketak. Hilaren 9rako zegoen iragarrita, baina eu-riaren ondorioz, bertan behera geratu zen partida. Une hartan, Karmel eta Gerrika ziren aurretik markagailuan 11 eta 10, baina bietako inor 12 tantora iritsi ez zenez, partida hutsetik hasi zuten berriz hilaren 14an. Talaixa baserriko Txurruka anaiek jantzi zuten txapela.



Udala eta 10 bai

10 bai taldeak hamar koadroko frontoia behar dela aldarikatu du, eta Udala eskaera hori aztertzen ari dela esan zuen Alfredo Etxeberria alkateak eguaztenean eskainitako prentsaurrekoan. Frontoia behar dela esatean bat egiten dute Udalak eta Kirol Patronatuak, baina alkatearen esanetan, bi arazo nagusi daude gai horretan: batetik, epeak aipatu zituen, eta beharra egon

arren, krisi garaian, frontoia ez dela "lehen-tasunezko" kontua esan zuen. Bestetik, kokapenaren arazoa aipatu zuen alkateak. Elgoibarren dimentsio horretako frontoia egiteko lekua lortzeko zailtasunak daudela zehaztu zuen.

Hala ere, bai Lagunak pilota eskolak eta 10 bai taldeak eginiko eskaerak aintzat hartu eta bilerak egiten jarraituko dutela gaineratu zuen.

Bizikleta irteera antolatu dute Mendaron zapaturako

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak denboraldi amaierako irteera antolatu du zapaturako. 10:00etan irtengo dira frontoitik, eta ondorengo ibilbide hau osatuko dute: Mendaro-Soraluze-Mutriku-Elgoibar-Mendaro (55 kilometro inguru). Bizikletan ibili ondoren, poteorako elkartuko dira berriz, eta ondoren, aurrez izena emandakoek, Landa jatetxean bazkalduko dute.

Kirola egiteko makinak jarri dituzte Mintxetako parkean

Kirola egiteko zazpi makina jarri ditu Udalak Mintxetako parkean. Makina horiek herritar guztiek erabiltzeko modukoak dira. Kanpoaldean daude, eta ez da ezer ordaindu behar. Udalak adierazi duenez, Mintxetako aparkalekuan jarleku batzuk ere jarriko dituzte aurki.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Leioa 1 (3. maila)
Getariako Keta 0 – Elgoibar 3 (Pref.)
Elgoibar 1 – Burumendi 1 (Ohorezko jub.)
Eibar 0 – Elgoibar 2 (Kad. A)
Eibartarrak 2 – Elgoibar 1 (Kad. B)
Bergara 3 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 0 – Lagun Onak 1 (Txiki)
Elgoibar 4 – Eibar 7 (Aleb.)

ESKUBALOA

Alkorta Elg. 32 – Tolosa 23 (Sen. mut.)
Hondarribia 24 – Beristain Elg. 16 (Jub. mut.)
Txarriduna Elg. 35 – Zarautz 22 (Kad. mut.)
IMH Elg. 22 – Bera Bera 30 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 14 – Zarautz 27 (Inf. mut.)
Astigarraga Elg. 34 – Arrate Amaña 4 (Inf. neska.)
Zumaia 23 – Ikus Elg. 14 (Inf. neska.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako txapelketa

Lagunak 22 – Murumendi 19 (1. mailako nag.)
Ilunpe 22 – Lagunak 13 (1. mailako nag.)
Lagunak 19 – Aurrera 22 (1. mailako jub.)
Lagunak 19 – Azkoitia 22 (2. mailako kad.)
Lagunak 9 – Eibar 22 (3. mailako jub.)

Pala

Añorga 20 – Lagunak 25 (3. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Aldaz 1 – Concepto Createch 3

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapateria, 23

16:00 Concepto Createch – Elorrioko (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapateria, 23

11:00 Elgoibar – Lagun Onak (Ohorezko inf.)

16:30 Elgoibar – Antzuola (Erreg.)

Domeka, 24

12:00 Elgoibar – Soraluze (Kad. A.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapateria, 23

11:00 Ikus Elg. – Aloña Mendi (Inf. neska.)

12:15 Aterpe Elg. – Bankoa Elg. (Kad. mut.)

17:30 Lauko Elg. – Zarautz (Jub. neska.)

ESKU PILOTA

Barbakua, 22

21:45 Lagunak – Intza (1. mailako nag.)

22:30 Lagunak – Alde Zaharra (3. mailako nag. Pala)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da egunez zein gauez gaixoak edo umeak zaintzeko. ☎ **680 223 378**
- Gizona eskaintzen da baserriko lanetarako, zerbitzari edo sukalde laguntzaile lanetarako. ☎ **686 077 316**
- Neska eskaintzen da 17:00etatik aurrera edo asteburuetan lan egiteko. ☎ **646 821 678**
- Mutila edozein lanetarako prest. ☎ **646 260 220**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ **699 609 190**
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko. Orduka. ☎ **626 490 986**
- Neska eskaintzen da garbiketak lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **686 578 228**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko. 12:00etatik aurrera. ☎ **690 202 181**
- Neska gaztea eskaintzen da garbiketak lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **686 234 612**
- Neska eskaintzen da garbiketak lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **669 311 385**
- Neska eskaintzen da garbiketak lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **636 362 251**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko. ☎ **696 246 962**
- Neska eskaintzen da garbiketak lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **648 603 029**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko. ☎ **645 461 600 / 943 743 638**

- Neska garbiketak lanak egin edo umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **650 280 670**
- Gizona elektrizista, pintore edo peoi lanetarako prest. ☎ **606 612 834**
- Emakumea orduka nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Gaez ere bai. ☎ **630 365 137**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **666 771 701**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko prest. ☎ **696 246 962**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketak lanak egiteko prest. ☎ **645 557 141**

ESKAITZA

- Zerbitzaria behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. Astean hamabost ordu. ☎ **615 761 463**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisia salgai Mendaron, Azpilgoetan. 75m². Igogailuarekin eta trastelekuarekin. Eguzkitsua eta dena kanpoldera begira. 170.000 euro. ☎ **655 746 480**
- Etxebizitza alokatzen dut Ubitarten. Bi logela, sukalde-egongela handia eta berogailua. Egoera onean. ☎ **943 742 442**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garajea alokatzen dut San Roke 5ean. ☎ **943 741 837**
- Garaje irekia alokatzen dut Arregitorre 8an. ☎ **685 796 713**

- Volkswagen Kalifornia T4 furgoneta salgai. 146.000 km. Egoera onean, sukalde, harraska, hozkailua. Lo egiteko lau leku. 13.700 euro. ☎ **671 841 563**

PARTIKULARRAK

- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎ **943 744 206**
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak emango lizkieke LHko umeei. ☎ **665 759 849**
- Ingelesa ikasteko partikularrak ematen ditut. ☎ **679 113 446**
- DBHko ikasleei klase partikularrak emateko pertsona behar da. ☎ **652 763 264**

BESTELAKOAK

- Gazteentzako lokala eskaintzen da Santa Klaran. Berrituta, komuna eta sukaldearekin. ☎ **669 645 514**
- BMW markako lau llanta salgai. 16 pulgadatakoak. Oso egoera onean. 400 euro. BMW serie 3 autorako osagarriak opari, 2001ekoak. Bi klimatizagailu panel, bi Blaupunkt irrati-kasete, aurealdeko sarea. ☎ **664 203 406**
- Ordenagailua salgai. Pentium 4, 3000, 1GB. Windows XP, DVD grabagailua, 80GBko disko gogorra, arratoia, teklatura, eta Epson inprimagailua. 250 euro. ☎ **628 581 900**
- Jatetxea itxi dugu eta barruko altzari eta tresneria guztia saldu nahi ditugu: mahaia, aulkiak, hozkailua... ☎ **635 751 642**

ZORIONAK ZURI


OSPAKIZUNAK Zortzigarren mailako afaria



25 urteren ondoren, zortzigarren mailako afaria egiten jarraitzen dugu. Datorren urtean ere bilduko gara, urriko lehen zapatuan. Aurten 25 izan gara; ia datorren urtean gehiago biltzen garen.



• Zorionak, **Maidor eta Aitor!** Hainbeste aldiz dantzatu eta gero, seguru zapatuko balsa berezia izan zela.



• Zorionak, **Duna eta Edith,** urriaren 25 eta 26an urteak beteko dituzelako. Izugarri maite zaituztegu!



• Zorionak, **Sara**, zure 16. urtebetetzean. Aittitta eta Loliren partez.



• Zorionak, **Ekaitz**, etxe-koen partez, urriaren 14an 6 urte egin zenituelako. Bereziki, Lukenen partez.



• Zorionak, **Danel**, zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat denon partez.



• Zorionak, **Ayelen**, domekan 3 urte egingo dituzulako. Aiton-amona eta osabaren partez.



• Zorionak, **Trini**, urriaren 18an 86 urte egin zenituelako. Lagunen partez, ondo pasa!



• Zorionak, **Aitor!** Muxu handi bat zure 5. urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Nora**, urriaren 18an 6 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **amumal** Ondo-ondo pasa biharko eguna! Guk ere oso ondo pasatuko dugu. Patxo bat.



• Zorionak, **Lidia**, hilaren 24an zure eguna delako. Urteak aurrera, eta zu gero eta gazteago! Segi horrela. Lagunen partez.



• Zelako neska handia egin zaren, **Ainhitzel** Dagoeneko 10 urte! Familiako guztien partez, ondo pasa eguna.




• Zorionak, **Imanol!** 11 urte bihurrierietan! Segi halakojator. Muxu handi bat etxe-koen partez.



• Zorionak, **Aimar**, zure 3. urtebetetze egunean. Etxeko-koen partez.



• **Unax**, piratatzko, gaur hiru kandela itzaliko dituzul! Ongi pasa lagun eta familiakoekin! Muxu pila bat gurasoen partez. Zorionak!



• Zorionak **Oier Arriolari** urriaren 13an 10 urte egin dituelako, eta patxo handi bat, Xabiren partez.



• Ongi etorri, **Jairo!** Familiakoen eta bereziki, arreba Amandaren partez.



• Zorionak, **amama, Miren eta Julen!** Aita, ama eta aittittaren partez.



OSPAKIZUNAK KINTOAK



1945ean jaiotako elgoibartarrek kinto ospakizuna egin zuten urriaren 16an. Sigma jatetxean egin zuten bazkaria, eta giro onean pasatu zuten eguna.



• Zorionak, **Jone**, hilaren 5ean 6 urte egin zenituelako. Familiakoen partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Maialen**, urriaren 19an 11 urte bete dituzulako. Jarraitu horrela! Muxu handi bat gurasoen eta Iratiren partez.

Erretratu bakarrekogurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

24 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 22 Zabaleta
- 23 Etxeberria (Errosario)
- 24 Etxeberria (Errosario)
- 25 Ibañez
- 26 Yudego
- 27 Etxeberria (Santa Ana)
- 28 Fernandez
- 29 Garitaonandia-Bidasolo

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



22 barixakua

Musika

23:00 'Skapando' taldearen
kontzertua

Madalako parkean.

23 zapatua

Zirkoa

10:00 Zirkoa eta pailazoak

11:00 Antzerkia

12:00 Globoflexia

Barren Azoka elkarteak
antolatuta, merkatu plazan.

Elkarteratzea

12:00 Udalbiltza aske

Epaiketa azken fasean sartu da,
eta auzipetuei babesa eskainiko
diete. Udaletxe aurrean.

24 domeka

Kirola

10:00 Mendi irteera

Ikastolako guraso taldeak
antolatuta, Gaintxipia mendira
egingo dute irteera.

25 astelehena

Arte tailerra

17:00 'Gemika'

Haizea emakume taldeak anto-
latuta, *Gemika* artelanari buruz-
ko tailerra egingo dute. Liburu-
tegian.

26 martitzena

Literatura tailerra

18:00 'Nada'

Carmen Laforetek idatzitako
Nada liburua aztertuko dute.
Liburutegian.

27 eguaztena

Hitzaldia

19:00 'Euskara, nire

errepublika'

Euskara ala Ezkara hitzaldi
zikloaren barruan *Euskara, nire
errepublika* izeneko hitzaldia
eskainiko du Anjel Lertxundi
idazleak. Kultur Etxeko hitzaldi
gelan.

LUDETEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 22

Ludori agur festa 17:00

ASTELEHENA 25

Musika jolasak 17:30

MARTITZENA 26

Sukaldaritza tailerra (LH4-LH6) 17:30

EGUAZTENA 27

Sukaldaritza tailerra (HH5-LH3) 17:30

EGUENA 28

Bazkide batzarra: Nola apaindu ludoteka?
17:30

GAZTELEKUKO EKINTZAK



BARIXAKUA 22

Zinea 19:00

ZAPATUA 23

Elgoibar Koloretan 17:00

DOMEKA 24

Ping-pong ligaxka 17:00

MARTITZENA 26

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 27

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 28

Sukalde txokoa 17:00

«Mis tardes con Marguerite»

22, barixakua: 22:15

23, zapatua: 19:00/22:15

24, domeka: 19:00

25, astelehena: 21:30

«Cómo entrenar a tu dragón»

24, domeka: 16:30

Jarri ezazu zure publizitatea

B

BARREN
astekarian
943 743 704



TXANKAKUA Txartelarekin ordaintzen baduzu, elikagaietan izan ezik Urria 15etik azaroak 15era

%5
merkeago

- | | | | | |
|--|---|--|--|---|
| AZIBRE SASTRIENA
ALBIRE ESTETIKA
ARANBURU BITOXIDENA
ARASRI LURRINBESIA
AZNUE ARSADRI BENEIA
CABA ASTIGARRIKOA
FARMA APINAZ
FERPI MODON | G & M -MANTZ BENEIA
GANITE JANTZI-BENEIA
GARRIBE ESTETIKA
GOMARA BROSERIA
HAZTEK
IBAMAR ITURBINTZA
IELUS OPTIKA
IRIBONDO KARDIAR | KALA LORADENSA
NARRICANO
LEDGAR ELECTRAGILUMA
LEYE
LONBON
LURIN ONTAKOAK
ING BUKONDEOLA
BUKLAMENDIBERAZ | OIKO ITURBINTZA
OITOPESIA ITZUP SARASNETA
OSORRO ONTAKOAK
OSTARRU ARSADRI BENEIA
OSTARRU ONTAKOAK
PITIBINTZA
SARA JANTZIDENEA
SIKANGALO OIKALA ETX. NERTZERIA | EZURRI OPTIKA
IGORITZE ONARDENEA
ZAZPI INFORMATIKA
ZUR |
|--|---|--|--|---|

Dirulaguntza:



Laguntza:



MERKATU PLAZAKO ELKARTEA
AURKEZTEN DU:



FUXEA MUZEA ZIBEUS

ZIRKOA,
ANTZERKIA
ETA UMEENTZAT
SORPRESAK



MERKATU PLAZA	10:00-10:50H
URRIAK 23	ZIRKO ETA PAILAZOAK
LARUNBATA	11:05-11:55H
	ANTZERKIA
	12:10-13:00H
	GLOBOFLEXIA

Erretratu zaharra



1948

Plaza Txikiko Astearen harira, orain 62 urte Plaza Txikian bertan ateratako argazkia ekarri du Pako Iriondok erredakziora. Argazki bitxia da, Plaza Txikian jaio eta hazitako askok sekula ikusi gabea, Pedro Mari Andonegi Plaza Txikiko jai batzordeko kideak aitortu duenez. Tomas Zubizarreta mediku handiari egindako omenaldiko argazkia duzue. 1948an izan zen, eta egun hartan garaiko aizkolari handienak izan ziren Elgoibarren. Izan ere, Tomas Zubizarreta ezaguna zen oso Elgoibarren. Medikua izateaz gain, CD. Elgoibar futbol taldeko zuzendaritzako kidea izan zen, Casto Iraegi eta Pako Salaberriarekin batera. Gogora ditzagun argazkian ageri direnak nortzuk diren: Arria I., Korta, Tomas Zubizarreta, Luxio eta Kortaberri.

ESKERTZA

GREGORIO GURRUTXAGA GARATE



*Udazkenak eraman zaitu,
eta hemen gaude biluzik,
baina zure maitasunak
jantziko gaitu barrutik.*

Etxekoak



2010eko urriaren 17an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranzatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa

bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Orduetara: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etxerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

San Roke 8, behe - Tel.: 689 926 016

Kontsulta ere badaukagu.

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beltia Arriola


- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869



ONGARRI ZINE KLUBA



EMAKUMEEN ERRETRATUAK

Urria, azaroa
eta abendua

Ostegunetan
21:30ean

Herriko
Antzokian